

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak antolatzeko laguntzen deialdi publikoa

2019ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2019ko otsailaren 8an egindako bilkuran, laguntza deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen hura arautuko duten:

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta araudi aplikagarria

Deialdiaren xedea da 2019an zehar, gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten eta genero ikuspegia txertatzen duten ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak garatzen eta antolatzen laguntzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lehiaketa bidez eman ahal izango dituen laguntzak arautzea.

Deialdi honen xede diren laguntzak emateko, kontuan hartuko da ea betetzen diren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Dekretuak, oinarri orokorrak onartzen dituenak Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten diru-laguntzak arautzeko, ezarritako bete-behar eta baldintza guztiak.

Bigarrena. Deialdiaren aurrekontua

2.1. Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak "Prestakuntza programak antolatzen dituzten elkarteentzako laguntzak" 1.80201.0122.481.00.01 gastuko aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira. Partida hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019rako luza-tutako 2018ko aurrekontuan dago sartuta eta 22.000 euroko gehieneko zenbatekoaz hornituta deialdi honetarako.

2.2. Aurrekontu ekitaldian ematen diren laguntzek, guztira, ez dute gaindituko kontsignatu-tako zenbatekoa edo aurrekontu aldaketaren ondorio direnak, baldin eta aldaketaren ondorio den zenbateko hori diru-laguntzak banatzen dituen ebazpena eman aurretik lortzea espero bada.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak

3.1. Irabazteko xederik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuak izan daitezke deialdi honetan jasotzen diren diru-laguntzen onuradunak, betetzen badituzte deialdi honetan, abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte zerbitzuei buruzkoan, 11/2016 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzenez, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritako betebeharrak eta baldintzak.

3.2. Honako hauek deialditik kanpo geldituko dira berariaz:

a) Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuekin zerikusia duten beste eremu batzuetara atxikitako jarduerak edota programak aurkezten dituztenak.

b) Diru-laguntza Gizarte Zerbitzuen ardurapeko jardun eremutik kanpo geratzen diren prestakuntza jardueretarako eskatzen duten erakundeak.

c) Diru-laguntza Arabako Lurralde Historikotik kanpo burutzen diren prestakuntza jardueretarako eskatzen duten erakundeak.

d) Diru-laguntza 2019ko ekitaldian burutzen ez diren prestakuntza jardueretarako eskatzen duten erakundeak.

e) Aurreko ekitaldietan jasotako diru-laguntzak epe barruan justifikatu edo itzuli ez dituzten erakundeak.

f) Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzenak, IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorrik izan dutenak.

g) Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoaren, 23 (2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz onartze prozesuan edo funtzionamenduan sexu arrazoiengatik bereizkeriak egiten dituztenak, bai eta sexu arrazoiengatik administrazio edo zigor zehapenen bat izan dutenak kasuan kasuko zehapenean adierazitako aldian, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoaren, 3 (1) artikuluan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoan, xedatutakoari jarraituz.

h) Eskatzen den xede bererako Gizarte Zerbitzuen Sailaren edo beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) aurrekontuan diru-laguntza izenduna dutenak.

i) Arabako Lurralde Historikoan egoitzarik ez dutenak.

j) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, hezkuntza erakundeak, sozietate zibilak, sindikatuak edo merkatari eta profesionalen elkarteak, oro har, bai eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere, baldin eta beren plazen ehuneko 75 baino gehiago erakunde jakin bateko kideentzat, enplegatuentzat edo senitartekoentzat gordeta badauzkate edo kide izateko aukera mugatzen dutenak badira.

k) Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duenak, xedatutakoari jarraituz Gizarte Zerbitzuen Erregistroan izena eman ez duten elkarte edo fundazioak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programa

Arabako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuen jardueraren arloetarako izango dira diru-laguntzak, eta dagokion aurrekontu partidan nahikoa kreditu badago emango dira.

4.1 Diruz lagundu daitezkeen programak.

- Arabako Lurralde Historikoan egiten diren ikastaro, jardunaldi, kongresu eta mintegien antolakuntzara zuzendutako jarduerak, baldin eta horien edukiek bat egiten badute gizarte zerbitzuen ardura espezifikoan jardun eremuekin.

- Deialdi honen bidez, 2019ko ekitaldian egindako prestakuntza ekintzak baino ezingo dira finantzatu.

4.2. Diruz lagundu ezin daitezkeen programak:

- Sail honen, Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuen edo horiei atxikiriko erakundeen beste deialdi batzuetan diruz lagundu daitezkeen programak edo jarduerak, baita Gizarte Ongizaterako Foru erakundeak berak ezarritako hitzarmenen bidez diruz lagundu daitezkeenak ere.

- Osasun gaiak berariaz lantzen dituzten prestakuntza programak edo jarduerak.

- Beste erakunde batzuen eskumen esparruaren barruan dauden prestakuntza programak edo jarduerak.

4.3 Diru-laguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak (diru-laguntzen Foru Arau Orokorrak) 27. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

27.7.d) artikuluan xedatutakoaren arabera loturarik badago, baimena eskatu beharko da azpikontratatzeko, organo emaileari zuzendutako idazki bidez. Deialdi hau argitaratu aurretik azpikontratatu bada, onartu egingo da baimen eskaera laguntza eskaerarekin batera aurkeztea. Horrek, ordea, ez du zehazten erantzuna halakoa edo bestelakoa izango den.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

5.1. Araututako eskaera eredu erabili behar da deialdi honetako laguntzetarako eskabideak betetzeko. Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean (Alaba Jeneralaren kalea, 10. 4. solairua, 7. bulegoa. Gasteiz) dago eskuragarri. Halaber, erakunde honek modu telematikoan eman diezazkieke eredu horiek hala eskatzen duten erakundeei, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen web orritik (www.araba.eus/ifbs) ere deskargatu ahal izango dira; hain zuzen ere, "Deialdiak eta laguntzak" ataletik.

5.2. Adierazitako helbidera eramanda edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezartzen duen moduan ere aurkez daitezke eskaerak.

5.3. Eskaerekin batera, diru-laguntzetarako eskatzen diren agiriak (jatorrizkoak) aurkeztu behar dira.

5.4. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eskatu ahal izango dira deialdi honi buruzko argibideak, honako bide hauek erabiliz:

Telefonoa: 945 15 10 15 (248)

Faxa: 945 15 10 17

Posta elektronikoa: pandres@araba.eus.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea

6.1. Laguntza eskaerak aurkezteko epea hilabete izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

6.2. Salbuespenez, behin epe barruan jasotako eskabideak ebatzi ondoren, eta betiere aurrekontuan kreditu erabilgarria izanez gero horretarako, 6.1. paragrafoan adierazitako epetik kanpo ere onartu ahal izango dira eskabideak izapidetzeko, betiere 2019ko azaroaren 30a baino lehen aurkezten badira. Horrela izatekotan, egiaztatu beharko da laguntzen beharrianak ohiko aurkezpen epea baino geroago sortu direla, eta horiek bidezko egiten dituzten arrazoi frogatuak daudela, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Zazpigarrena. Aurkeztu beharreko agiriak:

7.1. Bosgarren oinarri arauan aipatzen den eskaera orria, erakundea legez ordezkatzeko ahalmena duenak sinatua.

Eskaera orrian honakoak agertuko dira:

- Erakunde eskatzailearen datuak.
- Erakundearen legezko ordezkariaren datuak.
- Posta bidezko jakinarazpenetarako helbidea.
- Erakundearen banku datuak.

– Prestakuntza jardueraren gastu eta diru sarreren aurreikuspen xehakatur, eta horiek finantzatzeko dauden baliabideak: beste erakunde publiko edo pribatuei eskatutako edo eskatzea aurreikusitako diru-laguntzak, jasotako diru-laguntzak, eta norberaren ekarpenak.

– Memoria tekniko-prestakuntza proiektua, honakoak jasoko dituen:

– Jardunaldiaren, ikastaroaren, kongresuaren edo mintegiaren izena.

– Lortu nahi diren helburuen deskribapena, genero ikuspegia kontuan hartuta.

– Jardueraren egokitasunaren justifikazioa, genero ikuspegia kontuan hartuta.

– Hartzaileen tipologia.

– Publizitatea eta zabalkundea egiteko prozedura.

– Bertaratuko den lagun kopuruaren aurreikuspena, sexuka bananduta.

– Hizlarien zerrenda, eta haien curriculum vitae. Hizlarien joan-etorrien eta ostatuaren aurreikuspena.

– Programaren gai zerrenda, jardueraren helburuei jarraituz.

– Jardueraren datak.

– Jardueraren ordu kopurua.

– Herria eta lekua.

7.2. Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) fotokopia.

7.3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: Diru-laguntzetarako eskaera aurkezteak berekin dakar Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena ematea behar den adina aldiz ofizioz eska diezaion Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari ziurtagiri bat, eskaera egiten duen erakundea Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duena, salbu eta, diru-laguntza 800,00 euro baino txikiagoa izateagatik, hori egiaztatzeko betebeharretik libre badago, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten entitateek, gainera, dagokien zerga ogasunarekin dituzten zerga betebeharretan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

7.4. BEZa ordaintzetik salbuetsita dagoelako ziurtagiria, dagokion zerga administrazioak emana (lehenago aurkeztu ez bada). Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Elkartearen estatutuak.

– Eratze akta.

– Estatutuetan ez balitz erakundearen lehendakariaren kargua ordaindutakoa den ala ez adierazten duenik aipatuko, elkartearen idazkariak egindako ziurtagiria, ordaindutakoa den ala ez adierazten duena.

Zortzigarrena. Balioespen irizpideak

Laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Diru-laguntzetarako dagoen gehieneko diru kopurua proportzionalki banatuko da erakunde onuradunen artean.

Hona hemen laguntzak emateko erabiliko diren balorazio irizpide nagusiak:

a) Proiektuaren justifikazioa: programa edo jarduera zenbateraino egokitzen den antzemandako beharretara eta testuinguruaren azalpena eta proiektuak arazoa konpontzeko zer-nolako laguntza eskaintzen duen, genero ikuspegiaren gaiari helduta. Gehienez, 20 puntu.

– Handia: 20 puntu.

– Nahikoa/Ertaina: 10 puntu.

– Baxua: 0 puntu.

b) Antolatu nahi den prestakuntza jardueraren kalitate teknikoa (proiektuaren koherentzia orokorra, proposamenaren diseinua, metodologia, hizlarien prestakuntza, ebaluazioa, etab.). Gehienez, 30 puntu.

- Handia: 30 puntu.
- Nahikoa/Ertaina: 15 puntu.
- Baxua: 0 puntu.

c) Prestakuntza proiektuaren edo jardueraren berrikuntza maila. Gaiarekin, metodologiarekin, baliabideekin eta zabalkundearekin lotura duten elementu berritzaileak edo berritzailetzat jo daitekeen beste edozein elementu. Gehienez, 10 puntu.

- Oso berritzailea: 10 puntu.
- Ez oso berritzailea: 5 puntu.
- Ez da batere berritzailea: 0 puntu.

d) Prestakuntza jardueraren hartzaileen ezaugarriak. Gehienez, 5 puntu.

– Jardueraren hartzaileak edo onuradunak gizarte zerbitzuentzat lehentasuna duten talderen batekoak badira edo haiekin zerikusia badute (mendetasun egoeran daudenak, adinekoak, ezindua, gizarteratze edota adingabeen babeseko egoerak): 5 puntu.

- Beste pertsona batzuei zuzenduak badaude: 0 puntu.

e) Prestakuntza proiektuaren edo jardueraren irismena: hartzaile kopurua. Gehienez, 10 puntu.

- 100 pertsona edo gehiago: 10 puntu.
- 51 eta 100 pertsona bitartean: 6 puntu.
- 50 pertsona edo gutxiago: 3 puntu.

f) Eskatzen den diru-laguntzaren eta prestakuntza jarduerarako gastu osoaren arteko harremana: Gehienez, 10 puntu.

– Bi horien arteko proportzionaltasuna kontuan hartuta, puntuaziorik handiena emango zaio eskatutako laguntzaren eta jarduerarako gastu osoaren arteko proportziorik baxuena duen proiektuari: 10 puntu.

– Aldiz, puntuaziorik baxuena emango zaio eskatutako laguntzaren eta jarduerarako gastu osoaren arteko proportziorik altuena duen proiektuari: 0 puntu.

Gainerako eskaeren puntuazioak zehazteko, aurreko bi irizpideak hainbanatuko dira.

g) Eskatzailearen bat aurreko deialdietan ere diru-laguntza hauek eskuratzeko aurkeztu bada, kontuan hartuko da proiektua programatu bezala bete den eta justifikazioan zorrotz jokatu duen: Gehienez, 5 puntu.

- Betetze maila eta justifikazioan zorrotz jokatu bada: 5 puntu.
- Betetze maila eta justifikazioan ez bada zorrotz jokatu: 0 puntu.

h) Jarduerak emakume eta gizonen arteko berdintasun, erantzunkidetasun edo estereotipoak hausteko arloan aurrera egiten laguntzen badu: 5 puntu.

i) Jarduera EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten bada: 5 puntu.

a) eta b) irizpideetan, hurrenez hurren, 10 eta 15 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira kontuan hartuko laguntza hauetan.

Bederatzigarrena. Ukatzeko arrazoiak

Diru-laguntza ukatzeko arrazoiak honakoak izango dira:

a) Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea edo Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak ez betetzea.

b) Zortzigarren oinarri arauan adierazitako baremazioa kontuan hartuta, proiektuak edo jarduerak gutxienez 50 puntu ez lortzea.

c) Diruz lagundu ezin daitekeen programa bat izatea, laugarren oinarriaren arabera.

d) Administrazioa bera dagoeneko egiten ari den jarduera izatea.

e) Erakunde eskatzaileak oinarrietan eskatzen den dokumentazioa ez aurkeztea.

Hamargarrena. Kontzeptuak, diru-laguntza emateko irizpide espezifikoak eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak.

Ondoko hauek diruz lagundu ahal izango dira:

– Hizlariekin lotutako gastuak (ordainsariak, joan-etorriak, ostatua eta janaria). Opariak ez dira diruz lagunduko.

– Jardueraren berri emateko eta hura argitaratzeko moldiztegiko gastuak.

– Ikastaroaren azpiegiturarekin lotutako gastuak (gelaren alokairua, ikus-entzunezko materiala, etab.).

– Parte hartzaileentzako materialak eragindako gastua (dokumentazioa, karpetak, material suntsikorra, etab.).

– Jarduera koordinatuko duen idazkari teknikoaren kontratazioaren gastuak.

– Jardueraren antolakuntzaren ondoriozko gastu justifikagaitzak.

– Jardueraren antolakuntzarekin lotutako beste gastu batzuk (zeinu hizkuntzako interpretea, aldibereko itzultzailea, haurtzaindegia, kafea hartzeko etena, etab.).

– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GEHIENEO AURREKONTUAK
Hizlarien ordainsariak	Gehienez, 120 euro/ordu (pertsona bakar batek gidatutako jarduerak, gehienez 5 ordukoak).
	Gehienez, 90 euro/ordu (pertsona bakar batek gidatutako jarduerak, 5-10 ordukoak).
	Gehienez, 75 euro/ordu (pertsona bakar batek gidatutako jarduerak, gutxienez 10 ordukoak).
Hizlarien joan-etorriak a) Norberaren autoan edo taxian b) Beste garraiobide batzuetan	0,29 euro/kilometro, gehienez. 500 euro/pertsona, gehienez.
Hizlarien ostatua	80 euro/egun, gehienez.
Hizlarien dietak	42 euro/egun, gehienez.
Moldiztegiko gastuak (publizitatea)	600 euro, gehienez.
Jardueraren egoitza	200 euro/egun, gehienez.
Ikus-entzunezko materialaren alokairua	100 euro/egun, gehienez.
Parte hartzaileentzako dokumentazioa	10 euro/pertsona, gehienez (muga: 1.000 euro).
Idazkari teknikoa	Jarduera orduko, gehienez, 30 euro.
Gastu justifikagaitzak	Orain arte zerrendatutako kontzeptuen baturaren ehuneko 10 (muga: 150 euro).
Jarduerarekin harreman zuzena duten beste kontzeptu batzuk	Gehienez, zenbatekoaren ehuneko 100, muga honekin: diruz lagunduko diren gainerako kontzeptuen baturaren ehuneko 30.

Deialditik kanpo geratuko dira erakundearen ekipamendu, funtzionamendu eta mantentze gastuak.

Hamaikagarrena. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Zortzigarren oinarri arauko irizpideak aplikatetik lortutako puntu guztiak batuz gero, gutxirako puntu kopuru bat izango du emaitza, eta horri diru-laguntzatarako gehieneko ehuneko bat lotuko zaio, ondoko taula honen arabera:

PUNTU KOPURUA	DIRU-LAGUNTZAREN GEHIENKO EHUNEKOA
49 puntura arte	ehuneko 0
50 eta 59 puntu bitartean	ehuneko 60
60 eta 69 puntu bitartean	ehuneko 70
70 eta 79 puntu bitartean	ehuneko 80
80 eta 89 puntu bitartean	ehuneko 90
90 puntu, edo hortik gora	ehuneko 100

Hamargarren oinarri araua aplikatetik lortutako aurrekontuei -horiexek dira gehienez diruz lagun daitezkeenak- ehuneko horiek aplikatuta, azkenean zenbat diru-laguntza jasoko den zehaztuko da, baina ezin izango da, inola ere, 4.000 euro baino gehiago eman. Eskaera kopurua eta eman beharreko diru-laguntzak direla-eta diru-laguntzatarako ezarritako kopuruak gutxitu beharko balira, aurreko eskalan adierazitako ehuneko guztiak neurri berean gutxituko lirateke.

Deialdi honen babespean emango diren diru-laguntzen zenbatekoa (zenbateko horrek bakarrik nahiz bestelako erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzekin edo beste diru sarrera batzuekin batera) ezin da izan inolaz ere erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

Era berean, deialdi honetako diru-laguntzaz gainera beste erakunde batzuei xede bererako diru-laguntzak eskatu dizkieten edo eskatzeko asmoa duten erakundeek horren berri eman beharko dute berariaz eskaeran.

GOFEk onartzen den aurrekontu garbiaren ehuneko 100 finantza dezake. Hala bada, ezin izango da jaso helburu bererako beste pertsona edo erakunde batzuek emandako laguntzarik.

Hala ere, eskatu den zenbatekoa laguntza jardueraren kostuaren zati bat bakarrik ordaintzeko bada, beste batzuen ekarpenak erabili ahal izango dira kostuaren beste zatia ordaintzeko.

Hamabigarrena. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena

12.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun baliodun izango ditu eskatzen diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da alde aurretik), urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eska diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako diru-laguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eska diezazkieke.

Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritza izango da prozeduraren antolamendurako eta instrukziorako organo eskuduna. Idazkaritza horrek txosten teknikoak eskatuko du, laguntzaren xede diren jarduerak deialdiaren helburuekin bat datozen argitzeko.

12.2. Eskaerak balioztatuko dituen batzordean Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzako burua, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria eta prestakuntzako goi mailako teknikaria arituko dira. Idazkaritzako teknikariek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, aipatutako batzordeak ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek diru-laguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere.

12.3 Ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak emango du. Horretarako, hiru hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko gehienez emango den diru-laguntza zenbatekoa den zehaztuko du ebazpenak. Erakunde eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, horren aurka aurkez ditzaketen errekursoak adieraziz.

Ebazpena hartzeko gehieneko epea igarotakoan ebazpen adierazirik hartu ez bada, diru-laguntzari ezezkoa eman zaiola ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Horrek ez du ebazteko legezko betebeharretik salbuesten.

12.4. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean diru-laguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

12.5. Ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio bideari eta haren aurka gora jotzeko administrazio errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio Kontseiluari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamahirugarrena. Ordaintzeko modua

Emandako laguntzen zenbatekoak ordaindu ahal izateko, gastuak egin izana frogatzen duten agiriak eta deialdi publikoaren 14.2 puntuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar dira aldezturik.

Hamalagarrena. Gastuak justifikatzea

14.1. Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, 2019ko abenduaren 31ra arteko epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte.

14.2. Gastuak eta diru sarrerak justifikatzeko, justifikazio eredu normalizatua bete beharko da. Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 4. solairua, 7. departamentua, Gasteiz) edo posta elektronikoko helbidera pandres@araba.eus idatziz eskuratu daiteke.

Justifikazio horretan, gutxienez agiri hauek erantsiko dira:

- Abian den ekitaldian diruz lagundutako jarduera bakoitzaren azalpen memoria, justifikazio eredu normalizatuaren arabera, berdintasunarekin eta genero ikuspegiarekin lotutako alderdien berri emanez.
- Emandako diru-laguntzari esker burututako jarduerarako egindako egitarauen, argitalpenen, iragarki kartelen eta irudi eta idazki guztien ale bana.
- Partaideei emandako dokumentazioaren ale bat. Dokumentazio horretan ez da idatzizko zein ikusizko hizkera sexistarik erabiliko.
- Diruz lagundutako jarduera bakoitzaren diru sarreren eta gastuen zerrenda zehaztua.

- Diruz lagundutako jarduera bakoitzak eragindako gastuen jatorrizko ordainagiriak, eba-zpenean adierazitako zenbatekoa behintzat justifikatzen dutenak. 300,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da, enpresa hornitzailearen zigilua eta data jarrita dauzkan hartu-agiri, bankuko kopia edo fakturaren bidez.

- Urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa), 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu indarrean dagoen araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko, edo atzerriko monetan haren kontrabalioa duten eragiketak. Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

- Diruz lagundutako jarduerari profesionalak egindako fakturak egozten zaizkienean, kasuan kasuko fakturaz gainera, egin behar izan diren PFEZaren atxikipenak Ogasunari ordaindu izanaren egiaztagiria eta 190 ereduaren kopia aurkeztuko dira, jarduera egiteko kontratatu behar izan diren profesionalen zerrenda eta guzti. Horrek guztiak Ogasun Sailaren zigilua eramango du edo, Internet bidez egindako aitortpenak badira, 1 hartu agiria erantsiko zaio.

- Diruz lagundutako jarduera erakundearen soldatapeko langile batek egiten duenean, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Erakundearen beraren langileen kostuaren ziurtagiria eta langileen zerrenda, zuzen izenpetuta. GOFEk emango ditu haiek.

- Jarduera egin den aldiko nominen kopia. Soldata orrian antolatutako eta egindako jarduera diruz lagunduaren kontzeptua eta harengatik ordaindutakoa islatuko dira.

- Erakundeko diruzaintzaren arduradunaren zinpeko aitortpena, diruz lagundutako jarduerari atxikitako langileen nominak ordaindu direla justifikatzen duena.

- Ogasunari ordaindutako PFEZaren likidazioen kopia (110 eredu) eta ordaindu izanaren egiaztagiria, jarduera egin zeneko aldiari dagokiona, eta azken laburpena (190 eredu), erakundearen soldatapeko langileen zerrenda jasotzen duena. Horrek guztiak Ogasun Sailaren zigilua eramango du edo, Internet bidez egindako aitortpenak badira, 1 hartu agiria erantsiko zaio.

- Gizarte Segurantzari ordaindutako likidazioen TC1 eta TC2 agiriak, jarduera egin zeneko aldiari dagozkionak.

110, 190, TC1 eta TC2 agiriak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko da, eta diru-laguntzak ordainduko badira, egiaztatu egin beharko da Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan egunean dagoela.

- Diruz lagundutako jardueraren kostuaren zati bat beste diru-laguntza zein baliabide publiko nahiz pribatu batzuetako funtsekin finantzatu bada, diru sarrera horien zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira, baita sarrera horiek diruz lagundutako jarduerara nola aplikatuko diren ere. Hori egiaztatzeko, laguntzak eman edo ukatu direla egiaztatzen duten agiriak (ebazpena edota jakinarazpena) erantsi behar dira.

- GOFEk ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duen agiria. Egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten erakundeek dagokien Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharretan egunean daudela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik:

- Jaulkitzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena, NANA edo IFZ eta sinadura.

- Gastuaren kontzeptua, argi adierazita.

- Egite data.
- Fakturaren zenbakia.
- Atxikipenen xehakapena, indarreko zerga araudiaren arabera (BEZ, PFEZ, etab.).

Ez dira justifikazio gastu gisa onartuko zerga araudia eta, batez ere, PFEZaren (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko xedapenak betetzen ez dituzten fakturak.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan, onartuko dira konfiantzako zerrendan dauden konfiantzako zerbitzu elektronikoaren emaila kalifikatuen zertifikazioak. <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Diruz lagundu ahal izango da gizarte izaera duten erakunde edo elkarteek eskainitako zerbitzuengatik bere gain hartutako BEZa, izaera hori aitortuta izan ala ez, baldin eta egoera bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badituzte (BEZaren Foru Arauaren 20.3 artikulua, arau horren 20.1.8 paragrafoan jasotako zerga salbuespena aplikatzeari dagokionean).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jatorrizko faturekin batera aurkezten diren fotokopiak konpultsatu ahal izango ditu. Gastuen justifikazioa aztertu eta gero, aurkeztutako jatorrizko frogagiriak zigilu batez markatuko dira; zigiluan agertuko da zein diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa diru-laguntzari osorik edo zati batean egozten zaion. Azken kasu horretan, diru-laguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

14.3. Hasierako onarpena eman zaion diru-laguntzaren azken zenbatekoa mugatzat hartuta, eta betiere diru-laguntzaren xedeari eragiten ez badio, diru-laguntza emateko ebazpenean onartutako kontzeptu diruz lagungarriak eta dagozkien diru zenbatekoak aldatu daitezke, diruz lagungarri den kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Gastu kontzeptu berriren bat sartuz gero, deialdi honen hamabosgarren oinarriaren arabera arautuko da.

14.4. Justifikatutako zenbatekoa ebazpenean adierazitakoaren arabera frogatu beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, diru-laguntza murriztu egingo da egindako gasturik txikiaren proportzio berean. Murrizketa horretarako ez dago beste ebazpenik eman beharrik.

14.5. Agiriak adierazi den epearen barruan aurkeztuta, erakunde onuradunak ez baditu beharrezko agiri guztiak aurkeztu, horiek 10 egun balioduneko epean aurkez ditzala eskatuko zaio.

14.6. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman diren diru-laguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki irizten dion moduan, eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

Hamabosgarrena. Emandako diru-laguntzak aldatzea

Deialdia ebatzi ondoren, diru-laguntza jaso duten erakundeek, salbuespen gisa, diru-laguntzen erabakia aldatzeko eska dezakete, diruz lagundutako jarduera garatzeko zailtasunak badaude edo horri nolabait eragiten dioten arrazoiak agertu badira, betiere horrek ez badu emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gehitzen.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz jakinarazi beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari diru-laguntzaren erabilera aldatzeko arrazoiak, gertatzen den unean bertan eta betiere 2019ko azaroaren 30a baino lehen.

Desbideratze edo helburu aldaketa hori deialdi honetan aplikatutako diru-laguntza irizpideen arabera onartu ahal izango da ebazpen baten bidez. Laguntzak balioesteko kide anitzeko organoak aurkeztu diren aldaketa eskaerak aztertuko ditu eta, hala badagokio, emandako diru-laguntzak aldatzeko proposamena egingo du. GOFeko Zuzendaritza-kudeatzaileak ebatziko ditu aldaketok.

Hamaseigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

16.1. Diru-laguntzen onuradun diren erakundeek betebeharrak hauek dituzte, deialdi honetan, eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikagarri zaien araudian jasotakoez gainera:

- Diru-laguntza jasotzeko oinarriztat hartu zen jarduera egitea.
- Diru-laguntza eman duen erakundeari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari, jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta diru-laguntza emateko edo diru-laguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.
- Diru-laguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariarako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.
- Edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako diru-laguntzen edo laguntzen berri ematea idatziz erakunde emaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri emango dio.
- Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ematea.
- Diruz lagundutako jarduerak hedatu, kaleratu edo argitaratzen direnean, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Arabako Foru Aldundiaren babesarekin egin direla.
- EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerrari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan zabaltzen den publizitatea (liburuxkak, diptikoak, kartelak, etab.), bai paperekoa bai Internet bidezkoa, bi hizkuntza ofizialetan egin behar da.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexueta, roletan eta genero identitateetan.

16.2. Ezarritako betebeharrak horietako edozein nahiz indarrean dagoen legerian ezarritakoak ez betetzeak, aitortutako diru-laguntza iraungitzea ekarriko du, eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea.

16.3. Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatzuz gero, eta dirua diru-laguntzen esleipen erabakian jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko diru-laguntzenaren, 35. artikuluan adierazitako kasuekin aldebereotasuna gertatuz gero ere, emandako diru-laguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako diru-laguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horienagatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

Hamazazpigarrena. Diru-laguntzen aldebereotasuna eta bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako diru-laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo honi atxikitako erakundeetatik jaso ahal diren dirulaguntzekin. Salbuespen bakarra da bi erakundeek batera eta espresuki horretarako baimena eman izana. Hala ere, diru-laguntzen oinarri orokor arautzaileetan ezarritakoa beteko da.

Hemezortzigarrena. Errekurtsoak

Honako deialdi honen aurka nahiz haren ondorioz sortutako administrazio egintza orean aurka egin daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasuetan eta eran.

Hemeretzigarrena. Azken klausula

Deialdi honetako oinarriak, bere osoan, honako xedapen hauetan ezarritakoaren menpean egongo dira: Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituzten diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak; urriaren 11ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzena; eta azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-laguntzaen Lege Orokorra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO